



JAUARDUNALDIA: EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUA

GIDA PRAKTIKOAREN AURKEZPENA

gizarte eta ingurumen-arloko irizpideak bermatzeko klausulak

Kontratazio publikoa, gutxi gorabehera, BPGd-aren % 18,5 da, erakunde publikoak pertsona eta zerbitzuen kontratatzaile nagusiak bilakatuta horrela. Hori bolumen ekonomiko handia da eta, **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea** berriki onartzean, **aukera handiak zabaltzen ditu beren praktiken bidez gizarte hobe bat lortzen laguntzen duten ETE, kooperatiba eta enpresa txikientzat. Nazio Batuek onartutako Garapen Jasangarriko Helburuen Agenda 2030ean** aditzera ematen denez, beharrezkoa da **Kontratazio Publiko Arduratsu** bat egitea, gizarte- eta ingurumen-arloko klausulak gehituz erosketa eta kontratazio publikoetan, bai gure gizartea, bai ekoizpen eta kontsumoko ereduak eraldatzeko helburuz, modu jasangarriago eta ekitatibo batzuetarantz.

Ekonomia Sozial eta Solidarioan dugun ikuspegitik, lehenetsi egin behar da lan-baldintza duin eta kalitadedunak bermatzen dituzten enpresek kudea ditzaten erakundeen eta entitate pribatuen arteko kontratuak, genero-ekitatea eta ahultasun-egoeran dauden kolektiboak gizarteratzea zein laneratzea, bai eta tokiko garapen ekonomikoa ere, segurtatzen dituzten horiek, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena ematearren, ingurumenaren kudeaketa jasangarri bat bermatzearekin batera.

Horregatik, egin dugun Gida Praktikoaren aurkezpena gonbidatzen zaitugu, Erosketa Publiko Arduratsurako irekitzen diren aukera handien inguruan egunean jartzeko, kontratazio-prozesuetan nahitaez gehitu beharko baitira gizarte- eta ingurumen-arloko irizpideak, gardentasuna bermatzeko neurriak, ekonomia sozial eta solidarioko entitate jakin batzuentzat erreserbatutako kontratuak garatu beharra, etiketa sozial eta ekologikoak sartu beharra, eta abar. Gida honetan, **EHUNGINTZAKO PRODUKTUAK, TEKNOLOGIAREN ETA BIDEZKO MERKATARITZAREN ADIBIDE PRAKTIKOAK AURKITU** ahal izango dituzu.

Gainera, hornikuntza-katearen hiru esperientzia praktiko izango ditugu:

- EKOIZPENA: Bidezko merkataritzako produktu ekoiztetxe baten esperientzia. Ekuadorreko Maquita.
- BANAKETA: Bidezko Merkataritzako banatzaile baten esperientzia. Alternativa3.
- KONTSUMOA: Ingurumen eta gizarte klausulak sartu dituen kontratazio-teknikari baten esperientzia. Aitor Bilbao.

Espero dugu etor zaitezten. Horretarako, mesedez, eman izena [FORMULARIO HONETAN](#) edo zalantzaren bat izanez gero jarri harremanetan vitoria-gasteiz@setem.org helbidearen bidez. Agur bero bat.



Zentzuz kontsumitu
consume con Sentido

Zentzuz Kontsumitu partzuergoa Setem Hego Haizea, Mugarik Gabe eta Medicus Mundi Araba GGKEek eratzten dute, eta 10 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du Vitoria-Gasteiz erreferentziako hiria bihurtzeko helburuarekin, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaile bat oinarritzat duen eta bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzen duen ekonomia sozial eta solidarioko ereduari dagokionez.

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEA:



FINANTZATZAILEA:



JAURDUNALDIA: EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUA

Gizarte eta ingurumen-arloko irizpideak PLIEGOETAN SARTZEKO GIDA PRAKTIKOAREN AURKEZPENA

Helburu orokorra: gaikuntza ematea erosketa eta kontratazio publikoko prozesuekin lotura duten eragileei, eta gizarte eta ingurumen-klausulak sartzeko gida praktikoaren aurkezpena.

Hartzaileak: Administrazio publikoetako teknikariak

Eguna eta tokia:

- 2019ko irailak 19, LANDATXO GIZARTE-ETXEAN (Santa Maria kalea, 4 A, Vitoria-Gasteiz), erabilera askoko aretoan.
- Ostirala, 9:30etik 13:00etara

Plaza-kopurua: 50

Aurretik izena emateko: FORMULARIO HONETAN

Informazioa eta harremana: vitoria-gasteiz@setem.org